
MALLABIA

LURRALDE HISTORIKOA	Bizkaia
ESKUALDEA	Durangaldea
KOKAPENA	43º 11' 23'' (N) / 2º 31' 44'' (W)
ALTUERA	259 m
AZALERA	23,79 km²
BIZILAGUNAK	1.198 (2012ko errolda)
DENTSITATEA	50,36 bizt. / km²
HERRITARRA	Mallabitarra
POSTA KODEA	48269



Indalecio Olarguren (GureGipuzkoa.net)









Mallabia udalerria, Bizkaiko ekialdean dago, Oiz mendiaren magalean. Iparraldean Markina-Xemein eta Ziortza-Bolibar udalerriekin egiten du muga, ekialdera Eibar eta Ermuarekin, hegoaldera Zaldibarrekin eta mendebaldean Berrizekin. Lea-Artibai, Durangaldea eta Debabarrena eskualdeek inguratzen dute.

Mallabia izenaren jatorria *'malla + ibia'* izan daiteke, 'mendi arteko bidea'.

Mallabiko elizateak, Bizkaiko elizate guztien antzera, ez du jaiotza data ezagunik. Haren jatorria Bizkaiko Lur Lauari lotuta dago. Segur aski, Ziortzako elizatetik bananduta sortuko zen. 1635.urtean, Durangoko merindadeko batzarretan hirugarren jarlekua hartu zuen Etxebarriko San Agustinen ordez.

Jasokundearen eliza XI. mendekoa da eta XVI. mendean berreraikitzeari ekin zioten eta lanak 1750ean bukatu zituzten. Datu horien arabera, XI. mendean, Mallabian, biztanleria garrantzitsu samarra zegoen.

Gaur egun, biztanleriaren erdia inguru auzoetan bizi da: Areitio, Beranonagusi, Beranotxiki, Zengotita, Osma, Gerea, Goita eta Arandoño auzoetan. 2012ko erroldaren arabera 1.198 bizilagun ditu.

Biztanleriaren bilakaera:

URTEA	1857	1877	1887	1900	1910	1920	1930	1940	1950
Biztanleak	1.028	1.149	1.075	1.056	1.081	1.146	1.212	1.189	1.249

URTEA	1960	1970	1980	1991	2001	2006	2011	2012	2013
Biztanleak	1.142	1.201	1.149	1.133	1.109	1.135	1188	1198	1213

Historikoki, Mallabiko jarduera ekonomiko nagusia nekazaritza izan da, baserriaren inguruan antolaturik. Dena den, 1970eko hamarkadatik aurrera, industrialde batzuk eraiki dira, eta horrela, gaur egun, Mallabia Debabarreneko alderik industrializatuenetariko bat da. Nekazaritza garrantzia galduz joan da industriaren mesedetan.

Herrian guztira lau industrialde daude: Areitio, Goitondo, Mallabarrena eta Urtiaga. Mallabarrenako industrialdea, herrigunearen Goitondobekoa, Goitondoerdikoa, Goitondogoikoa eta Goitondo Bekolau. Gaur egun 400.000m² -tik gorako lurzoru industriala du Mallabia herriak.



Indalecio Olarguren (GureGipuzkoa.net)



Indalecio Olarguren (GureGipuzkoa.net)









PERTSONAIA HISTORIKOAK

MALLABIAN JAIOTAKO HAINBAT PERTSONAK EZAGUPENA JASO DU BERE BIZITZAN ZEHAR EGIN DUTEN IBILBIDEAGATIK. HORIEN ARTEAN AURKI DITZAKEGU MILITARRAK, IDAZLEAK, ELIZGIZONAK, KIROLARIAK... NAHIZ ETA GEHIENAK GAUR EGUN EZEZAGUNAK ZAIZKIGUN HISTORIAKO ORRIETAN AGERTZEN DIRA EUREN IZENAK.

JUAN DE ZENGOTITABENGOA ITURZAETA

Zengotitabengoa baserrian jaioa, Zengotita auzoan. Militarra izan zen, zalditeriako koronela. Carlos IIIren ordenako zalduna eta Isabel Katolikoa erreginaren komendadorea.



FRANCISCO ZENGOTITABENGOA ITURZAETA

Zengaotitabengoa baserrian jaioa, Zengotita auzoan. Militar karlista. 1872an Durangoko batailoiko koronela eta komandantea. Amorebietako konbenioa hitzarmena sinatu zuen.

LEANDRO ZABALA

Musikaria. Mallabian jaio zen 1876an.

ILDEFONSO URIZAR APOITA

Elizgizona. Mallabian jaio zen 1809an. 1832an apaiz egin zen. 1844ra arte apezpikuaren idazkaria. Mallabian abade egon zen 1852ra arte. 30 urtez Gironako Elizbarrutiko gobernadorea izan zen.1882an hil zen.

ESTANISLAO GISASOLA ARTAMENDI

Idazlea. Mallabian jaio zen 1905an. Gazte denbora Legazpian igaro zuen. *Argia*, *El Día*, *Zeruko Argia*, *Eibar* eta beste hainbat aldizkaritan kolaboratu zuen.

LUZ SALDUEGI GABILONDO

Mallabian jaioa 1915ean. Madrilen burutu zituen albaitaritza ikasketak, 1937an. Bera izan zen lehen emakume euskaldun albaitaria eta hirugarrena estatu guztian. Gerra garaian Eusko Jaurlaritzako Abeltzaintza saileko zuzendaria izan zen. Madrilen hil zen 2003an.



GREGORIO GERENABARRENA AGIRREBENGOA

Elizgizona. Mallabian jaio zen 1912an. 1941an apaiz egin zen. *Histoire d'une Ame de Santa Teresita* itzuli zuen euskarara. Organo berritzaile gisa zuen trebeziagatik atzerrian aritu zen lanean, Txile eta Erroman, besteak beste.

DIGNA GARITAONAINDIA

Pilotaria, *Txikita de Mallabia*, ezizenez ezagutua. 1940 aldera emakume erraketazaleen taldea osatu zuen Bartzelonako *Condal* eta *Colón* pilotalekuetan.



PABLO BERASALUZE ZABALA

Pilotaria. *Txikito de Mallabia* ezizenez ezagutua. Mallabian jaio zen. 1930an debutatu zuen profesional mailan.



FRANCISCO DE LONGA ANCHIA

Mallabian jaio zen 1783an. Independentzia gerran borrokatu zuen Napoleonen aurka, Fernando VII.ari leialtasun osoa erakutsiz. Valentzian hil zen 1831n.

ESTEBAN ASTARLOA ZUBIA

Baritonoa. Mallabian jaio zen 1917an. Madrilen debutatu zuen kantari profesional gisa, *María Herrero* antzokian, Mozarten *Las Bodas de Figaro* abestuz. Opera kantaria izan zen eta, bestek beste, Pucciniren *La bohème*, Verdiren *La traviata* eta Guridiren *El Caserío* abestu zituen. Madrilen hil zen 1997an.

JUAN BAUTISTA AGINAGA ARRIAGA

Elizgizona. Mallabian jaio zen 1838an, 1862an apaiz egin ostean, Ziortzan egon zen 1868ra arte. Isabel erreginari koroa kendu zion iraultzaren ondoren Uruguaira ihes egin zuen. Argentinan hil zen 1900. urtean.

IGNACIO ARTAMENDI ABENDIBAR

Pilotaria, *Artamendi II* ezizenez ezagutua. Mallabia jaio zen 1990. urtean. Esku pilotan 1920an hasi ostean, 1929-35 bitartean eman zituen bere urterik onenak. 1941ean erretiratu zen.

ROSA ARREGI ARRIAGA

Pilotaria. Mallabian jaio zen 1922an. *Rosita* ezizenez ezagutzen zen. Mexikon, Madril Bartzelona eta Valentzian ibili zen erraketan jokatzen. 2007an hil zen.



©Testu eta argazkiak: MALLABIKO UDALA, JUSTO AZAGIRRE eta PELLO MUGARTZA

EAEko lurralde osoaren koloretako ortofotoa, 25cm pixelekoa, 2011/06/19 eta 2011/06/25 daten artean egindako hegaldi fotogrametriko digitalean hartutakoa / Ortofoto de 25cm de pixel, realizada a partir del vuelo fotogramétrico digital efectuado entre las fechas 19/06/2011 y 25/06/2011, para todo el territorio de la CAPV.